R. GOSCINNY Asterix A. UDERZO

# IDEFIX®

## ETA MENDERAKAITZAK

## IDEFIX ETA DRUIDA

Testuak: **M. Choquet**

Marrazkiak: **P. Fenech**




SALVAT

GOSCINNYK ETA UDERZOK
AURKEZTUTA

# IDEFIX
# ETA DRUIDA

Testuak: **M. Choquet**    Marrazkiak: **P. Fenech**



SALVAT



K.A. 52. URTEAN GAUDE. ERROMATARREK LUTEZIA OSOA ARMAZ HARTUTA DAUKATE... OSOA? EZ! IDEFIX BURU DUELA, LUTEZIAKO ANIMALIA MENDERAKAITZEN BANDA BATEK ORAINDIK ERE BURUA MAKURTU GABE EUSTEN DIE INDARREZ SARTU NAHI DUTENEI. ETA BIZIMODUA EZ DA BATERE EROSOA LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTEN LABIENUS JENERALA ETA HAREN TXAKUR TALDEARENTZAT...



**IDEFIX,** ABENTURA HAUETAKO HEROIA, ARGIA ETA BIZIA DA, USAIMEN FINEKOA. MENDERAKAITZEN BURU, LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTENEN AURKA DABIL BORROKAN. GAUZA BAKARRAK ATERATZEN DU BERE ONETIK: TXIKIA DELA ESATEAK!



**TURBINE** LUTEZIAKO TXAKURRIK BIZKORRENA DA! LAGUNTZEKO PRESTUTASUN HANDIA BADU ERE, ZORITXARREZ, ESAN ORDUKO AHAZTEN ZAIZKIO IDEFIXEK AZALDUTAKO ASMO GUZTIAK ...



**HARAKIX** TALDEKO INDARTSUA DA. ERROMATAR TXAKUR TALDEEN AURKA OLDARTU ETA AIREAN BOTATZEA DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIONA! TOLOSARRA JAIOTZEZ, OILASKIX ETA ARDIKINE HARAKINAK DITU NAGUSI, ETA HAIEK EGINDAKO LUKAINKEKIN BURUA GALTZEN DU!



**BALENTINE** KATEME ASKEA DA, KONFIANTZA HANDIKOA ETA ZIRIKATZAILEA. LUTEZIAKO TXOKO GUZTIAK EZAGUTZEN DITU, ETA ATZAPAR ZORROTZAK ATERATZEN DITUENEAN, ERROMATAR TXAKURREK GORRIAK IKUSTEN DITUZTE!



**GAUTXORIX** HONTZA AMNESIX DRUIDAREKIN BIZI DA BASOAN, ERROMATARRENGANDIK IHESEAN. IKUSI ETA IKASI, NAGUSIAREN ANTZERA DRUIDATZAT DU BERE BURUA. EDABEAK PRESTATZEKO OSAGAIAK NAHASTU ARREN, SEKULA EZ DU DESIRATUTAKO EMAITZARIK LORTZEN!



**ASMATIX** USO ZAHARRA LUTEZIARRA DA. GALIAR GUDUETAKO BETERANOA IZAKI, CAMULOGENO GALIAR BURUZAGI GARAITUARI MEZUAK ERAMATEN ZEBILELA ZAURITU ZUTEN. LUTEZIAREN OROIMEN BIZIA, BERE JAKINTZA GUZTIA PASATZEN DIE MENDERAKAITZEI. ETA, NOLA EZ, KALEAN USO, OGIA GOXO! EZIN EZETZIK ESAN LURRERA BOTATAKO OGI-PAPURREI!


ILARGI BETEKO GAU BATEZ,
LUTEZIAKO FORUMEAN...
HARA!
NORK UTZI DU
HAU HEMEN?
MAUKA!!!
!?!

